

Ordena z.
Nº orden

HEZIKETA ZIKLOETARA SARTZEKO PROBA PRUEBA DE ACCESO A CICLOS FORMATIVOS

Goi Mailako Zikloak / Ciclos de Grado Superior

Atal komuna / Parte común

Euskara eta Literatura

NAN / DNI		Izena / Nombre	
Abizenak / Apellidos			
Sinadura / Firma			

2020ko maiatza / mayo de 2020



Emakumezkoak elkarrizketatzearen magiaz

Literatura deskubritu nuenean edo, beste era batera esanda, literatura nire jakin-mina ase zezakeen iturria zela ulertu nuenean, idazle ospetsuei eginiko elkarrizketak irakurtzeko parada izan nuen: Robert Graves, John Dos Passos, Jorge Luis Borges, George Seferis, John Steinbeck, Anthony Burges, eta beste hainbat. Elkarrizketa haiek ederrak iruditzen zitzaizkidan oso, obraz gain, idazlea bera ezagutzeko aukera ematen zutelako: idazlearen “beste” ahotsa deskubritzeko aukera; gertukoagoa egiteko edo eta, idazlea, paperetik kanpo ukitu ahal izateko. Elkarrizketa haietan, ostera, “gizonaren” egia deskribatzen zen. Eta nik, egunen batean, “emakumearen” egia ere aitortuko zela amestu nuen.

Kazetaritza ikasi ez beste, hainbat elkarrizketa egitea egokitu zitzaidan: askotarikoak egin nituen, era, modu, eta arrazoi ezberdinek bultzatuak, baina emakumezkoari eginikoei dagokienean, azalekoak taxutu nituen sentsazioa daukat. Hau da, emakumezkoaren esentzia deskribatzera heldu ez izanarena. Beti ere, albistegarri ziren heinean elkarrizketatu nituelako, apika. Behin, haatik, adinean sartutako emakume batek zeharo kolpatu ninduela gogoratzen dut. Herriko marmitako lehiaketa irabazi izanagatik elkarrizketatu nahiko nukeela aditzera eman nion. Eta hark baietz, etxean hartuko ninduela. Emakumea, zain izan nuen. Harrera egin zidanean, makillatuta zegoela konturatu nintzen, okasiorako jantzita eta lurrin freskoz gozatua. Elkarrizketara eraman ninduen gaia zela-eta, sukaldaritzarako gustua eta denbora nondik nora ateratzen zituen galdetu nion. Eta bere erantzuna zera izan zen: bost seme-alaba zituela eta lan asko egina zela, baita etxetik kanpo ere. Baina gauza bat zaindu eta maitatu zuela beste ororen gainetik: bere burua. “Nik, egunero, ohetik jaiki ez beste, bizitza guztian egin izan dudana lehenengo gauza, neure burua garbitu, orraztu eta ezpainak gorritz pintatzea izan da” argitu zidan.

Zortzi unibertso, zortzi idazle liburua prestatzeko, zortzi emakumezko idazleri elkarrizketak egin dizkiet. Elkarrizketekin asko ikasi dut, bai idazle bezala, bai pertsona bezala, eta baita emakume bezala ere. Irakatsi handiak eman dizkidate zortzi idazle hauek. Hausnarketarako gai andana. Nik, haiek esandakoetatik, hiru gai aipatu nahi nituzke honakoan:

Arantxa Urretabizkaiak, emakumea beti deskubritzen ari dela aipatzen du. Beti deskubritzen ari den sentsazioa duela, horrek dakarren desgastearekin. Hau da, hain literatura gutxi dago emakumearen inguruko gaiez, hain gutxi idatzi eta hedarazi da, ezen, egiten ditugunak eta sentitzen ditugunak lehenengoz gertatuko balira bezala dela.

Yolanda Arrietak, emakumezkoak jaso ohi duen mezuaz zera dio: emakumezkoari, familia, etxea, lana eta ingurua hobetzeko jardun behar duela esaten zaiola. Eta mezu horrek, berak, emakumea isilarazi egiten duela. “Zuk egin” esaten omen zaio, “eginak hitz egingo du-eta”. Baina hori ez omen da horrela. Gauza asko eta guztion onerako egiteak, ez baitu emakumea askatzen ez eta emakumearen lana errekonozitzen.

Lourdes Oñederrak, beste kontu askoren artean, emakumeak bere buruari “merezi dut” aitortu behar diola diosku. Eta ideia honek, Yolanda Arrietak esandakoarekin bat egiten du. Lourdesen iritziz, emakumeari beti besteentzako lan egitea eskatu izan zaio eta, beraz, beretzako dela uste duen zerbait egin behar duenean, dela, adibidez, idaztea, emakumea ez omen da eroso sentitzen. Eta horregatik hasten omen da emakumea ezkutuan idazten, horregatik, gainontzeko lan guztiak bukatu ondoren (etxeakoak, familiakoak, lanekoak...), gauari orduak lapurtzen. Modu honetan egindako lanak ere ez omen dakar inolako errekonozimendurik, ezta emakumeak bere buruari zor diona ere.



Elkarrizketok egiterakoan, erantzun hauek jasotzerakoan, goizean goizetik ezpainak gorriz margotzen zituen emakume adinekoa etorri zitzaidan burura. Hau da, birdeskubritu egin nuelako (Arantxa Urretabizkaiaren hitzetan), lehenik eta behin, emakumeak bere burua maitatu behar duela; ulertu baita, emakumezkoaren jarduna ez dela bere ingurua ederrestea bakarrik (Yolanda Arrietaren ideiak gogoratuz) eta adinean sartutako emakume hark erakutsi zidalako, bere buruari merezi zuela aitortzen ziola (Lourdes Oñederraren ideia berrartuz).

Zortzi elkarrizketa hauetan, emakumezkoek mikrofonoa berenganatu egin dute. Bazeukaten zer esan. Esateko gogoia zuten. Bazeukiten zer esan behar zen eta nola aditzera eman nahi zuten. Adibidez josita zituzten erantzunak, ironiaz gainezka luzaz isildutakoak. Konplizitate keinuz azpimarratu dituzte salatu beharrekoak. Irribarre ederrez margotu dute eginiko bidea eta indarrez irudikatu etorkizuna. Pertsona eginak eta helduak aurkitu ditut nik, inguruak aurrezarritako iruditik haratago, bai idazle eta baita pertsona bezala ere.

Eta sekretua, elkarrizketa generoan dagoela deskubritu dut. Elkarrizketak, testuinguru zehatz batean, lekukoaren egia osoa ezagutzea baitu helburu: testuinguruarena bai baina, batez ere, lekukoarena. Eta horretarako, lekukoari galdetzen dio eta ez testuinguru osatzen duen ingurumariari, iritzi askotarikoari, tribuari. Lekukoa baita iritzi kualifikatua duena. Lekukoa baita benetako subjektua. Subjektu hori, emakumea, ahantzia izan dugu orain artean, ordea. Ez dugu bere ahotsa ezagutzen, ez dakigu bere ikuspuntua zein den, nola sentitzen duen, nola mugitzen den, zer pentsatzen duen... ez baitiogu testuingurutik at galdetu. Galdetuz gero, subjektu horrek egia handiak ditu esateko, egia berriak deskubritzeko, gure munduaz daukagun irudia irauli eta berriro osatzeko indarra du. Elkarrizketatu batek esaten zidan bezala, nola jakingo dute, bada, zer nahi dugun, ez digute galdetzen eta? Nik, galdetzeko suertea izan dut, eta magia gertatu da.

Ana Urkiza (Emakunde 66 aldizkaia)



7. Aukeratu zuzen idatzita dagoena.(0,25 p, oker erantzunez gero, -0,25p)
- Martxoaren 8an, igandean, ospatuko da Emakumeen Nazioarteko Eguna.
 - Martxoak 8a, igandea, ospatuko da Emakumeen Nazioarteko Eguna.
 - Martxoaren 8n, igandean, ospatuko da Emakumeen Nazioarteko Eguna.
 - Martxoaren 8an, igande, ospatuko da Emakumeen Nazioarteko Eguna.

8. Berridatzi testuko esaldi hauek aldaketa morfosintaktikoak eginez, eta parentesi artean emandako forma erabiliz, adibidean bezala. (1p)

Ad. Ingelera gurean sartzeko moduan zaindu ezean, ondorioa kaltegarriak sor daitezke. **(ba-)**

Ingelera gurean sartzeko modua zaintzen ez bada,...

- Elkarrizketa haiek ederrak iruditzen zitzaizkidan oso, obraz gain, idazlea bera ezagutzeko aukera ematen zutelako. **(ez ezik... ere)**
 - Emakumezkoiei eginikoei dagokienean, azalekoak taxutu nituen sentrazioa daukat. **(-(e)lakoan egon)**
 - Herriko marmitako lehiaketa irabazi izanagatik elkarrizketatu nahiko nukeela aditzera eman nion. **(-(e)lako)**
 - Bazeukaten zer esan. **(-t(z)eko(rik))**
 - Elkarrizketatu batek esan zidan bezala, nola jakingo dute, bada, zer nahi dugun, ez digute galdetzen eta?. **(moduan)**
9. Atzizki/aurrizki hauek kontuan hartuz, sortu bina hitz gehiago aurrizki/atzizki berberarekin, adibidean bezala: (0,5p)

Ad. ANIZTASUN: batasun, askatasun...

- IDAZLE:
- KAZETARITZA:
- SENTSAZIOA:
- BIRDESKUBRITU:
- ETORKIZUN:



10. IDAZLANA: 200 hitz inguru gai honi buruz: (5p)

Ikastetxean eskuko telefonorik ez

Egoera: 2018-2019 ikasturteik aurrera, Frantziak debekatu du Lehen eta Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetan sakelako telefonoak erabiltzea, bai ikasgelan, bai jolastokian.

Eginkizuna: Guraso zaren aldetik, idatzi gaiari buruzko artikulua, zure seme-alaben ikastetxeko aldizkarian argitara dezaten. Bertan, eman zure iritzia Frantzian hartutako erabakiaren inguruan, eta adierazi Eusko Jaurlaritzak ere horrelako debekurik ezarri beharko lukeen, horretarako argudioak emanaz.

Lagungarriak:

- Sakelako telefonoaren erabilera eta gizalegea.
- Eskuko telefonoaren erabilera eta ikasleen arteko harremanak.
- Ikasgelan arreta galdu, azterketetan kopiatu...
- Telefonoa, eskola-jazarpenerako beste bide bat.
- Eskuko telefonoa, ikasteko lagungarri: informazio bilatu...

